

gezurra dirudi

Gema Lasarte



Ez da mende bat ere pasatu emakumea industrializazioak nahiz gerrek utzitako hutsuneak medio lan munduan murgiltzen hasi zenetik. Gezurra dirudi baina ez da mende bat bera igaro emakumea etxetik irten eta lanean nahiz botoa ematen hasi zenetik. Geroztik gauzak zenbateraino aldatu diren? Nabarmena da aldaketa eman dela. Baina badago oraindik zer eginik, izan ere, langabezia tasak handiagoak dira emakume langabetuenak gizonetik alderatuta; soldatak oraindik ez dira gizonetikoa parera iritsi; egun erdiko lanak oraindano emakumeentzako dira eta ardura postuetan gizonentzakoak dira nagusi.

Halere nik, oraindik emakume langileek etxearekin duten loturari erreparatu nahiko nioke.

Alicia Lombardi terapeuta argentinarrak dio ama-alaba arteko harremana, giza harremanetatik traumatikoena dela, amari tokatzen zaiolako alabarengan bere mendetasun eta ezintasun guztiak betiketzea; oraindik gizartearen hegemonian dauden egitura maskulinoak ondo funtzionatu dezaten. Sistema patriarkalaren eginkizuna izan da amak egiazko biktimia izatetik errudun sentiaraztea. Etxean bakartuak, amak seme-alabei gerta zekiekeen guztia euren errua zela pentsatzera ere heldu dira. Lan munduratzearekin biktimismoak nahiz errudun sentitzeak arindu dira baina translazioa eman delakoan nago. Emakumea lan munduan ari den honetan, alegia, oraindik ere etxearen gobernuan epizentroa da eta iruditzen zait errudun sentitze horrek beste eite bat hartu duela. Hau da, emakumeak ez ote diren errudun sentitzen lan publikoak umeekiko kentzen dien espazioa nahiz denboraz. F